

“TALDE LANA DA GAINDITU BEHAR DUTEN ERRONKA NAGUSIA”



Aita Larramendi Ikastola | DBH

Kosmodisearen zazpigarren edizio honetan, DBHko ordezkarien artean Aita Larramendi Ikastolako Zimaik taldeak lortu du punturik gehien Ikono planetan. Gorka Matutek zuzendu du taldea. Hori ez da Matutek lortu duen sari bakarra, bi eskuratu baititu.

Nabaritzen dute ikasleek lehiaketaren fase hau irabazteak dakarren ezagumendua?

Ikasleak orokorrean ez dira konturatzen fase hau irabazteak zer suposatzen duen. Badakite hiru etapa direla eta orain lehenengo joateak ez duela garrantzi gehiegirik.

Nola hartzen dute sarituak izan direla jakitea?

Sarituak izan direla ilusio handia egiten die, gelakideekin txantxetan aritzen dira eta modu oso onean hartzen dute.

Fase honetan finalista izateak motibatzen al ditu ikastetxeko beste talde batzuk?

Bai noski, sailkapenean ondo joateak motibazio izugarria suposatzen die, zalantza uneetan lan gehiago egiteko motibazioa ematen die.

Zalantzak izan zenituzten garatu beharreko gaia aukeratzeko?

Hasiera batean ez zuten oso garbi zein gai aukeratu, baina azkenean gai hartu eta horrekin oso gustura ari dira lanean.

Zer zailtasun gainditu behar izan zenituzten lana egiteko?

Taldean aritzeak suposatu zien hasieran lan handiena. Lanak banatu, rolak definitu, etab. Baina behin hori ongi eginda txukun ibili dira lanean.

Zein da gai honetatik ateratzen duzuen irakaspen nagusia?

Adin honetako ikasleentzat, talde lanean modu egokian aritzeak suposatzen die erronka nagusia, beraz horrelako proiektuak asko laguntzen dute hori lantzen.

Zer espero duzue Kosmodisea ekimenaren gaineraketik?

Ikasleek orokorrean gustara dabilta lanean, beraz orain arte joan zaien moduan jarraitzea espero dugu. Beraiek ere amaierako jaialdiaren zai daude !